



## Euskal Herri guztiko nekazari ekologikoak Tolosan elkartu dira

**PRODUKTUAK** ▶ Beren produktuak erakutsi eta saldu zituzten atzo Trianguloko azokan

**INFORMAZIOA** ▶ Nekazaritza mota honi buruzko informazioa banatu zuen Ekonekazaritzak ▶ 4,5



Erosleen jakinmina eta ikusmina piztu zuten atzo goizean Tolosako Triangulo plazan produktu ekologikoen. IMANOL GARCIA

**TOLOSALDEA** ▶

**Otamendi eta Artola, Rikardo Arregi sariak**

Ohorezko saria eta sari nagusia jaso dute ▶ 2

**XABIER ARTOLA** ▶  
TXIRRINDULARIA

«Europako lehen zortzietan egon naiteke»

Bigarren izan da Espainiakoan ▶ 7

**UDANE SARASOLA** ▶  
TXIRRINDULARIA

«Ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz»

Espainiako Txapelketara doa ▶ 7

**TOLOSA** ▶

**Osasunak Mikel Arruabarrena fitxatu du** ▶ 7

**AGUSAN-EREN JAIETIKER**

Udako menua  
20 eurotan

Euskal Herria plaza, 6 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 10 59

**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa  
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa  
Tel./Faxa: 943 67 01 14  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua  
→ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria  
→ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

**Goi-mailako zikloak: Euskaraz**

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemaren Administrazioa

**MATRIKULA IREKIA:**  
ekainaren 30etik uztailaren 6ra

Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56  
[idezkaritza@tolosaldea.com](mailto:idezkaritza@tolosaldea.com)  
[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA

## MINUTU ERDIAN ▶

Zezen-plazaren  
mendeurreneko  
bideoa, bihar

**GIZARTEA** ▶ Tolosako zezen-plazak mendeurrena bete zuen 2003 urtean. Ekitaldi ugari izan ziren urtemuga hori behar bezala ospatzeko: zezenketa bereziak, herri kirol jaialdiak, liburu, Ainhoa Artetaren, Euskadik Orkestraren eta musika banden kontzertuak... Orain mendeurreneko ekitaldi haiek bideo baten jaso ditu antolatzaile izan zen Toros Tolosako Zezenak enpresak eta bihar 20:00etan eskainiko du Kultur Etxean. Herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte bideoaren aurkezpena eta ondoren DVDaren kopia banatu eta Triangulo kafetegian lunch bat izango dela zehaztu dute.

## UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

## Gai al gara?



**D**enbora luzean egon dira zain, baina azkenean iritsi da, iritsi da eguna eta iritsi da albiste. Nazioarteko prentsan ere, agerkari digitaletan, lehenengo orrira ekarri duten notizia: Espainiako Kongresuak legeztatu dituela homosexualen arteko ezkontzak.

Gai gara horretaraino behintzat, albiste bere horretan jasotzeko. Legez, libre dute jada ezkontzea. Izanen da, honenbestez, datorren asteburuan ezkontzarik Euskal Herrian.

Baina gai ote gara normaltasun osoz haien maitasuna onartzeko? Gai ote gara haiek orain arte sufritu dutena ulertzeko eta benetako arazoaz jabetzeko? Izan beharko genuke.

Espainiako irrati kate batean entzun dut egunotan gai honi buruzko tertulia bat. Madrileko

auzo batetik egin zuten programa, homosexual askoren bizileku izan den auzo batetik hain zuten ere. Homosexualak eta auzokoak gonbidatu zituzten gay-ekontzen inguruko tertuliara. Gonbidatu haietako batek negoziua zuen auzo horretan. Homosexualentzat urte latzak ziren garaian jarritako negoziua zen. Istiluak noiznahi izaten ziren orduan, homosexualen kontra sortutako istiluak. Negozioa ixtear izan zirela ere kontatu zuen gonbidatuak. Baina itxaroten ikasi zuten eta, hara, gaur pozik bizi dira. Bezero homosexual asko omen dute, zein baino zein jatorragoak eta zintzoagoak.

Albiste hau entzunda zera pentsatzen dut: izanen da noski hauen artean ere akatsdun eta maliziadun jenderik! Gizaki orozen artean bezalaxe, noski.

Urte gutxian deabru izatetik aingeru izatera pasa dira askorentzat. Bertuteak aitortu dizkiegun bezalaxe akatsak ere aitortzen dizkiegunen izanen da homosexualen eta heterosexuen arteko benetako ezkontza.

TOLOSALDEKOHITZA.  
INFO ▶Zer iruditzen  
zaizu bidegorria?

Oso ondo. Guztiz erabilgarririk iruditzen zaizkit. Gero eta bidegorri gehiago, orduan eta aitzaki gutxiago berebilean toki guztietara joateko.

AGIRRE ▶ TOLOSA

Bidegorriaren ideia zoragorria iruditzen zait, baina ez kokatu duten tokian. Jarri duten lekuan denentzat arazok ekarriko dituela iruditzen zait, kotxe karabanak, banataileak non geratu? Anbulantzia edo emergentzia baten aurrean zer? Eta itxuren aldetik ere itsusia geratzen dela esan behar du. Bidegorria bai, baina beste leku batetik, dagoenak arriskua du eta!!!

WINI ▶

## IRUDIA ▶



JON URBE/ARGAZKI PRESS

## Martxelo Otamendi eta Maite Artola, Rikardo Arregi sariak

**Erredakzioa** ▶ Atzo banatu zituzten Andoainean Rikardo Arregi kazetaritza sariak eta horietako bi Tolosaldeko bi kazetarientzat izan dira. Martxelo Otamendi tolosarrak ohorezko sarietako bat jaso zuen —bestea Luzien Etchezaharretak— lehen *Egunkariako* eta orain *Berriako* zuzendari gisa «euskarazko komunikabideak enpresa ikuspegi batekin sortzen eta bultzatzen erakutsitako gaitasunagatik». Sari nagusia Maite Artola ibartarrak jaso zuen, Eus-

kadi Irratiako *Mezularia* saioko arduraduna, «gidaritza lan bikaina, aktualitatearen berri dotoreziaz emateko gaitasuna eta umorea» nabarmenduz. Beste tolosar bat —Eneko Imaz— aipamen berezia jaso duen *Elhuyar* aldizkariak argitaratutako *Erraustegiak sutan* txostenaren egileetako bat da, beste lankide batzuekin batera. Argazkian, Otamendi eta Artola, beste sarituekin atzo eguerdian Andoaingo udaletxean.

Bidegorria behar beharrezkoa genuen, baina guztiok Rondilla kaletik pasa behar ote dugu? Kotxeak, bizikletak, anbulantziak... Alde zaharrea bost kale geratu dira oinezkoentzat, hauetako bat ezin al daiteke erabili bidegorri bezala? Bestalde gure bizikletak *aparkatzeko* tokiak ere egokitu beharko dira.

TORROT ▶

Bidegorriak edo tranbiak ipini behar direnean, beti hasien dira herritar ugari arazoak sortuko dituela eta abar esanez. Eta berebilek zer? Horiek ez al dute oztopo egiten?

IZENIK GABE ▶

Bizikleten artean istripuak izateko aukera jarri dezute, Rondilla kalean batik bat.

PIKUTARA ▶

Desastre jarri duten ibilbidea. Gune peatonalak aprobetxatu behar dira.

DESASTRE ▶

Rondilla kaletik bidegorria ateratzea eskatu diogu Udalari, baldintzak ez direlako betetzen eta arazoak besterik ez duelako sortzen. Epe bat eskatu digu Udalak. Noiz arte? Istripuren bat gertatu arte?

DENDARIA ▶ TOLOSA

Aspalditik nahi genuen bidegorri bat eta orain horrelako txapuz egiteko? Gure ikasleak kontzientziatzen urte asko pasa ditugu eta orain arazoak besterik ez. Kendu Rondillatik eta Agintari edo beste norabaitera eraman!

ANDEREÑO ▶ TOLOSA

VALENTIN DORRONSORO ▶ DISCOVERY CHANNEL TXIRRINDULARI TALDEKO MASAJISTA

## «Beste urteetan Armstrong nola aurkitzen zen ez dakit, konparatzeko»

**Joxemi Saizar** ▶ Fromentinen (Frantzia) Tourra hasteko prestakizunetan harrapatu du Hitzak Valentín Dorronsoro alburturra.

**Aurten talde berria ari zara. Nolako izango da zure Tourra?**

Hemezortzigarrena izango da niretzat, baina aurrekoen berdintua. Autobusa eramaten

eta masajeak ematen ariko naiz. Lance Armstrongek bere masajista dauka eta ez zait tokatuko, baina beste taldekideak bai.

**Zer iruditzen zaizu ibilbidea?**

Urtero berdintua izaten da: Pirinioak, Alpeak, erlojuaren kontra, taldekakoa... Agian hasierako etapa da desberdinena, normalean baino

luzeagoko erlojuaren kontra izango delako.

**Nola dago zure taldea?**

Ondo. Dauphine Liberen ondo aritu da. Best urteetan Armstrong nola aurkitzen zen ez dakit, konparatu ahal izateko. Besteak nola dauden ikusi behar: Ulrick, Basso... Honek bakarrik egin du Giroa. Gero beti norbait berria ateratzen da.



OLAIA ESKITXABEL

**Eta euskaldunak?**

Mayok ondo ibiltzeko aukera dauka. Prestakuntza erabat desberdina egin du aurten iazkoarekin konparatuta, lasaia aritu da, gutxiago korritu du. Lehen postuetan bukatzeko aukera dauka. Talde ona dauka —Zubeldia, Landaluze...—, baina bera da erabakiorra, bestela alferrik da. Beste euskaldunetatik Garatek urtea salbatu du Giroan 5.a eta Espainiako Txapelketa irabazita eta aukerak baditu, aprobeztatzera aterako da. Gero Chaurreau, Astarloza, Horrillo... hor daude.

### ESANA ▶



**BONI ALDAYA**  
HIPPIA. AMEZKETA.

«Ideal bat baldin baduzu drogak ez zaitu akabatzen; beste ezer ez daukazanean bai»

### DATUA ▶

**468**

**etorkin.** Hori da Tolosan erroldatuta dauden etorkin kopurua, iaz zeudenak baino 81 gehiago. Hauek dira bere jatorri nabarmenenak: Maroko 56, Ekuador 56, Portugal 54, Ukraina 32, Argentina 26, Brasil 25, Kolonbia 25, Dominikar Errepublikak 21, Frantzia 18, Kuba 16, Aljeria 13, Ginea 11, Mexiko 8, Errumania 8, Eresuma Batua 5, Alemania 4, Txile, Angola, Thailandia, Txina, Italia, Alemania, AEB, Nikaragua... Beste atzerritar asko, Tolosan bizi arren, ez daude bertan erroldatuta. Maiatzaren 8an amaitu zen paperean azken erregularizazio prozesuan 13 etorkin onartu dituzte Tolosan.

## EZBAIAN ▶ Duela gutxi Aste Berdea izan da Tolosan; Hirukide eta Laskorain ikastetxeetan gaia landu eta horri buruzko iritzia eta proposamenak eman dituzte Eskola Agenda 21eko Foroan; hona hemen bi ikastetxeetako ordezkariak esandakoa

LUISI ARREGI (NATUR ZIENTZIETAKO IRAKASLEA LASKORAIN IKASTOLAN) ▶

### Garapen iraunkorra

**A**ste Berdea, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna, Mugikortasunaren Astea, Klima Aldaketari Buruzko Urtea, Garapen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategia... Gaur egun herritarren kezka nagusitakoa da ingurumena, edo hori esaten dugu galdetutakoan. Baina, zer egiten dugu herritarrok hainbeste kezkatzen gaituen ingurumenaren egoera hobetzeko? Gutxi, ezer gutxi. Baina, neurri eraginkorrak har ditzakeen administrazioak ere, ezer gutxi egiten du.

Lekuko Agenda 21 ezarri du, bai; ingurumen heziketarako laguntzak bideratzen ditu, bai; publizitate kanpainak egiten ditu, eta zer esaten du kanpaina horietan? Guk, herritarrok, gutxiago kontsumitu behar dugula, zaborra bereizi behar dugula, ga-

rraio publikoa erabili behar dugula... Eta zer egiten du administrazioak bitartean? Errepide berriak eraiki, abiadura handiko trenak, erraustegiak edo kai erraldioak sustatu, nekazaritzarako edo guztion aisialdirako izan litekeen lurretan golf zelaiak sortzeko edo hirien erdian parking berriak eraikitzeko baimenak eman,... Kontraesanean dabil nire ustez. Eta honekin ez dut esan nahi aurretik aipatutakoak beharrezkoak ez direnik; heziketa garrantzitsua da eta garapen iraunkorrerako kontzientziaioa eta parte hartzea sustatzea ere bai. Baina neurri horiek berean ez dira nahikoa.

Guztiok dakigu benetan eraginkorrak izango diren neurriak zorrotzak izan behar dutela eta ez direla askoren gustuko izan-

go, baina noizbait egin beharko diogu aurre arazoari. Bestela, gure seme-alaben belaunaldiak, ingurumen heziketa jaso duen belaunaldi horrek, nekez ekingo die guk konpondu nahi izan ez ditugunak konpontzeari edo, okerragoa litzatekeena, ez du zer konpondurik izango.

Izan gaitzen ausartak eta har ditzugun benetan beharrezko diren neurriak: lurrotako ibilgailuen gaineko zergak handitu, hirien erdigunean ibilgailuen erabilera murriztu, daukagun errepideekin moldatzeko neurriak hartu, daukagun tren sarea hobetu, garraio publiko kalitatezko eta eraginkorra sustatu...

Nik ez dut beste konponbiderik ikusten. Beste guztia, gure kontzientzia lasaitzeko ekintzak besterik ez dira.

IRENE CAMINOS ETA OLATZ LIZARTZA (ETA HIRUKIDE IKASTETXEKO BESTE 25 IKASLE, GURASO ETA IRAKASLE) ▶

### Kiotolosa

**K**oto, garai batean Japoniako hiriburua izana, egungo hiribururitik, Tokiotik hego mendebaldera aurkitzen da. 1997an Kioton, aldaketa klimatikoari buruzko konferentzia garrantzitsua egin zen, karbono dioxido emisioak gutxitzea zuelarik helburu. Konferentzia horretan Kiotoko protokoloa adostu zen eta atmosfera babesteko indar berezia egin behar duten herrialdeen zerrenda idatzi zen. Protokoloa sinatuta, 38 herrialdeek, 2008-2012 urteen artean, 1990ean jaurtitzen zuten karbono dioxidoa % 5,2 gutxitzeko konpromisoa hartu zuten. Europako Batasunak adibidez, % 8 gutxitu behar du. Estatu Batuek, berriz, ez zuten protokoloa sinatu. Gaur egun ezinbestekotzat jotzen da berotegi efektua gutxitzeko mundu mai-

lako hitzarmen hau sinatzea. Hala ere hasierako borondate hau poliki-poliki bidean galdu dela dirudi. Kioto protokoloaren helburuak lortzeko oraindik urrun gaude, gobernuak, industriak eta abarrek lan asko dute egiteko helburua gaindituztat eman aurretik. Azkenaldian gainera, datuak ez dira batere baikorrak, Euskadin, adibidez, helburura gerturatu baino urrundu baizira.

Helburua lortzeko, gobernuak, industriak eta abarrek aparte, gutako bakoitzak zerbaitekin egin dezakegu. Zer egin genezake? Oso garrantzitsuak eta beharrezkoak dira, gure eguneroko bizitzan hain txiki eta hutsalak diruditen keinuak. Horregatik ikastetxeetako forotik hartutako konpromisoa helarazi nahi genizueke. Kotxez, errepide-

an goazenean 100 km/h-ko abiadura ez gaintutzea eta herrian zehar 30 km/h-ko abiadura errespetatzea proposatzen dugu. Keinu txiki baina garrantzitsua da: 120 km/h-kotik 100 km/h-kora murrizten badugu gure kotxearen abiadura, %40 erregai gutxiago beharko genuke eta honek atmosferara jaurtitako CO2 gasen emisioa ere murriztea suposatuko luke. Sinaturak biltzeko mahaia jarri genuen eta gure proposamenarekin konprometitzeko prest dauden herritar guztientzat kotxean ezartzeko pegatina bat du eskura. Dagoeneko 130 herritarrek sinatu dute.

Hemendik gure gonbitea luzatu nahi genizueke guztioi, Kioto protokoloari eta gure herriari bultzada txiki eta beharrezko haur eman diezaiogun.

AZOKA EKOLOGIKOA ▶

# Ekologikoaren erakusleku

Euskal Herri guztiko nekazari ekologikoek, tartean Tolosaldekoak ere, beren produktuak erakutsi eta saldu zituzten atzo Trianguloan egindako azokan



Produktu ekologikoez ikusmina sortu ohi dufe Tolosan eta horien artean azokan eskainitako gazta mota ezberdinak izan ziren. I. UGOLA

IMANOL GARCIA

Biotur Gipuzkoa elkarteak eta Tolosako Udaliak antolatuta azoka ekologikoa izan zen atzo Trianguloan. Produktu ekologiko ugari erosteko aukera izan zen, barazkiak, gartak, ardoa, sagardoa, ezta, mermeladak, ogia, prestatutako jakiak... Euskal Herri guztitik etorritako ekizileak izan ziren, eta hortetatik zenbait Tolosaldekoak. Ekizile batzuk gusurago zuzen besteak baino salmentari dagokionez.

Abaltzasketako Nahera Handi baserriko Angela Linares-ek mermeladak zituen salgai bere postuan. «Salmenten aldetik ez da izan oso egun ona. Lehenengo urteetan dena berria zen eta jende asko etortzen zen erostera, baina orain gutxiago etortzen dira». Aldiada azoko Alde Zahar elkarreko Xabier Almandoz gusurago zegoen saldukoarekin. Ahuntz, behi eta ardi garta eraman zituzten azokara, horiek batiira zigilu ekologikoarekin dituzten produktuak. Azoka ekologikoez hasi narketa egiten zuten Almandozek: «Orain bost bat urte produktu ekologikoak horretarako ezin zuten bakarrik aurkitzen zituzten, baina gaur egun eskaintza zabaltzen ari da eta horregatik azoka batzuk moteldu egin dira. Beraz, nire ustez, azoka ekologikoez bertasunak erakusteko balioko dute etorkizonean».

Berrobiko Soronea baserriko Izaskun Uranga bigarren urtean izan zen aurtengo Tolosako azoka ekologikoa: «Nahiko gutxi saldu dugu. Hasieran ondo joan da, baina gero eguraldi onagatik edo jaitzi egin da erosteko kopurua», azaldu zuen Urangak, bere aitzoparekin batera Soronea denda ekologikoa eramanen duena Tolosako Alde Zaharrean.



Jaki ekologikoez egindako enpanadillak erosteko aukera izan zen. I. UGOLA

**"OPORRETARA NOA EROSKI BIDAIAK EKIN"**

Costa del Sol 300

Benidorm+Terra Mitica 300

Mallorca 299

Paris 279

**EROSKI** *erosteko*

## Giro ederra azoka ekologikoa

Pablo Alberdi ▶ Atzoko azoka ekologikoa oso giro polita izan genuen goiz osoan zehar Tolosan. Triangulo plazan, postu ekologiko ugari zegoen jarrita, eta denetatik zegoen salgai bertan. Barazki ekologikoak, gazta, gazta paneia, ardoa, oloa, edo eta fruta ekologikoa. Produktu bereziren bat ere izan zen, kiwi fruitaren kasua bezala.

Berdura plazan ere izan zen giroa, eta barazterako postuetan izan zen animazioa ez zen makala izan. Negurako espe-

zian landatzeho garsia iritsi da dagoeneko, eta plazako postuetan nabaritu zen animazioa. Azak, azaloreak, edo eta bruselak adibidez, hasi dira dagoeneko.

Zerkausiko postuetan ere nobedaderen bat ikusi genuen. San Joan sagarra eta San Pedro sagarra aurkeztu ziren. 2 euroko prezioetan. Perretxiko zerranda ere zabalda izan zen atzoko azokan. Onddoak, zizak, ziza horiak, gibelidina eta senderusiak izan ziren. ◀

### PREZIOAK ▶

Gaita	merk.	gare.
Kabellina	4,80	-
Piper	2,40	-
Pipera	0,20	-
Onddo	22,00	30,00
Ziza	15,00	30,00
Ziza horia	15,00	-
Altxasa	2,50	-
Tolosako babarrun	8,00	12,00
Tomatea	3,00	4,50
Tindila	0,80	1,00
Aratzizak	1,30	2,30
Ardi garta	12,00	14,00
Beri garta	7,00	7,50

Eguraldia ere alpatu zuen Eugeni Agirretxek salmenta nahiz bezain ondo ez zelako joan. Bere familiarik inarubatero izaten da Zerkausian eta atzo bai han eta bai Trianguloan, beren barazki eta lore mota aski salmentu ziren. Informazio eskaera gutxiti egin dela azaltzen zuen Agirretxek: «Aldizka gero eta gehiago eragutzen dituzte produktu ekologikoak». Barazkiak eta behi esnea saltzen ditu Anoetako Sarobe baserriko Gregorio Zuaznabarrek. «Beste urteetan baino lasaxago», zioen goizean zehar izandako mugimenduari buruz galdetean. Nekazari anoetarrek ere bat egiten zuen Agirretxekin: «Beste urteetan gehiago galdetu dute produktu ekologikoez. Izan dateke urte batzuk badaramatzagula eta erostek dagoeneko eraguzten gaituelako».



Ogi saltzaileak arnalkasta izan zuen eta Ekonekazaritzak jarritako postura ere gerturatu zen nekazaritza ekologikoaren informazio bila. I. UGOLA

### Informazioa eskura

Ekonekazaritzak —Eko nekazariek eta ekizileak biltzen dituen federazioa— jarritako informazio mahain, liburua, fitxa teknikoak eta aldizkariak erosteko aukera zegoen, tartean federazioak berak kaleratan duen Ekoluzia. «Garrantzitsua da horretako azokak egitea, bertako nekazari ekologikoez egiten duten nekazaritza erakusteko», zioen Hruzari Ekonekazaritzako koordinatzailea den Josune Romo tolosarrak. Horretaz gain, hazi buruzko erakusketak bat zegoen ikusgai. «Jendeak jakiteko nola buru ahal dituen hazi ekologikoez jartzen dugu erakusketak», azaldu zuen Elena Saucak, federazioko hazi ekologikoen proiektuaren arduradunak. «Hazi ekologikoa eskura izateko ari gara lanean, izan ere, hazi nekazaritza gutzitzen hasiera bat».

**TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK**

**BI LANPOSTU BETE BEHAR DITU**

1-Atezaina eta mantentzen arduraduna izango dena.

2-Zerbitzu osagarrien buru, arlo ekonomiko titulua duena.

Curriculumak e-mailaz bidali behar dira [tolosa@kastola.net](mailto:tolosa@kastola.net) zurebidiera. Jasoako diren azken eguna, urtialak 8

**Agaitua da**

eta zu, beregal al zara?

JAIK ▶

# Gaur dute egun handia, baina atzokoa ez da makalago izan

Herriz herri, sanpedroetan eta Amarozko jaien azken eguna izanen da gaurkoa



Amaroz. Eguerdiko bazkalzerako, aurrena ajoarriero lehiaketa egin zuten. JAIONE ASTIBIA



Asteasu. Txikiak ere ederki ibili ziren. JON LIZARRIBAR



Areso. Soinu jotzailea etorri eta baserritara eskera joan ziren. J. A.

## JAIONE ASTIBIA

Gaur izanen dute amaiera hango eta hemengo sanpedro jaietako ospakizunek. Baina egun bete dago oraindik festarako, edozein aukeraz baliatu eta gure inguruetako herri nahiz auzoetako ikuskizunek gozatu eta beraietan parte hartzeko. Egitaraeuei begiradaxoa bota, aukeratu eta egun pasa ederra egiteko nonahi badago aukera.

HITZAK horrelaxe egin zuten atzo eta hango eta hemengo ikuskizunek gozatzeko beta

hartu zuten, eta uda beteko eguraldia ere izaki, egun pasa polita suertatuz zitzagun, hara.

Goizean, gosaldu ondoren, Areson egin genuen aurreneko geldialdia: han soinu jotzailea iritsi zenean, Lagun artea gazteen elkarteko kideekin, baserrietarantz abiatzeko keinua egin genuen, haiek eskera joan baitziren, «brusa berriak» soinean zituztela, argitu zigutenez. Itzulerakoan, bazkaria egin eta herriko umeentzat Ginkana jokoa zuten egitekoa herriko plazan.

Goizetik jostaketan hasi zirenak, ordea, Amarozko haurrak izan ziren, puzkarrietan eta esku-lanetan trebatzeko aukera izan baitzuten. Kozkorxeagok txirrindu-frogan zebiltzan bitartean. Gustura aski ibili ziren, gora eta behera irrian, nahiz saltoka eta zinbuluka, gurasoak ere ondoan erne zituztelarik.

Beste batzuk berriz, zehazki zazpi talde, ajoarriero lehiaketan parte hartzeko prestatu ziren. PAT delakoaren ondoko estalpean, sukaldeak antolatu eta jakia prestatzeko osagaiak txikitzen, kazuelak berotzen... eta lagun arte bikainean aritu ziren, ahal zuten eta ajoarriero goxoena atontzen.

Asteasun ere, bazkaria izan zuten, baina haurrek, umeen egun izaki, eta ondoren, Korri, Xalto eta Brinko pailazoeekin nahiko farre egin zuten bertan bildu ziren guztiak.

Herri desberdinak, eta ekitaldiak ere halaxe. Aukera egin eta aurrera.

## EGITARAUAK ▶

### AMAROZ

- 8:30. Diana.
- 09:00. Meza.
- 10:30. Eskulan erakusketa Beti Gazteak elkartean.
- 12:00. Amarozko toberak.
- 14:30. Auzo bazkaria.
- 18:30. Dantzarien saioa eta aureskua.
- 20:00. Afari-merienda.

### ARESO

- 11:00. Meza eta prozesioa.
- 12:30. Eskea herrian eta ondoren bazkaria.
- 18:30. Trikitilariak plazan.

### ASTEASU

- 12:00. Pala Txapelketaren finala. Ondoren sagardo dastaketa.
- 18:30. Herri kirolak. Ondoren Xukan taldearen *Maritxu nora zoaz* bertso-dantza lana.

### LARRAITZ

- 12:30. Meza. Ondoren hamaiketakoa eta trikitilariak. Arratsaldean ere erromeria.

### LEABURU

- 10:30. Meza eta ondoren herriko dantzarien saioa.
- 12:00. Pilota partidak.
- 18:30. Gipuzkoako Harri Txikien Harrijasotze eta Trontza Txapelketak. Ondoren trikitilariak.

### URKIZU

- 09:00. Diana
- 11:00. Meza nagusia. Ondoren toka txapelketa.
- 18:00. Bolo txapelketa eta umeen jolasak. Trikitilariak alaituko dute eguna.

## hilberriak eta urteurrenak ▶

### Maria Pilar Mujika Mujika

andrea

Uztailaren 1ean hil zen, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Bere anai-arrebak: Maitere eta Juanjo Martínez Leunda eta Ramon; ilobak: Eneko eta Izaskun Zorita Aguirre eta Imano; lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizueetea arren etor zaitezela GAUR IGANDEA, arratsaldeko seieta, XXXX parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Larraitz 42, 4.D.

oharra ▶ gorpua beilategian dago

ALEGIA, 2005eko uztailaren 3a

### M. Pilar Mujika Mujika

Bidean erortzen direnak ahaztu sekulan ez.  
Beti aurrera begiratu  
barre eta negarra aldarrikatu.  
Amets guztien azpitik  
eta oztopo guztien gainetik



Alegiako lagunak

ALEGIA, 2005eko uztailaren 3a

### Pili Mujika Mujika

(irakaslea)

Loxorro goxoa geratu zara ama lurraren altxoan  
etsipenaren atzaparretatik ihesi  
ortzimugaren ertzera  
gorputz txikian bihotz handia  
zenuen Pili laguna  
zure jarduna gure artean  
betirako izango da.

Samaniego herri ikastetxea

TOLOSA, 2005eko uztailaren 3a



### Josefa Amiano Luluaga

(Patxi Agirrerren alarguna)

Uztailaren 1ean hil zen, 76 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Seme-alabak; anai-arrebak; ezkon anai-arrebak; bilobak: Eneko eta Onditz, Kristina eta Xabier, Itxaso eta Maite, Naroa eta Maialen, Naiara eta Iker.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizueetea arren etor zaitezela GAUR IGANDEA, arratsaldeko SEIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Eguzkitza baserria.

oharra ▶ gorpua Tolosaldeko Tanatorioan dago

ALEGIA, 2005eko uztailaren 3a

KIROLA ▶

Udane Sarasola anoetarra Euskal Selektzioarekin prestatzen ari da uztailean jokatu den Espainiako Txapelketa. Xabier Artola tolosarra berriz Espainiako txapelkunorde izan zen duela aste gutxi. Biekin mintzatu gara. **IÑIGO ASENSIO**

XABIER ARTOLA ▶ TXIRRINDULARIA

# «Nik uste aurreneko zortzietan egotea posible dela, hala pentsatu behar da behintzat»

Hiru aste barru jokatu den Europako Txapelketa prestatzen ari da Xabier Artola

Pasatako denboraldian Pistako Europako Txapelketan 4. izan zen. Aurten bere helburu nagusia Italian jokatu den Europako Txapelketan egotea zen. Herri lanen Ingenieritza ikasten ari da eta azterketetan dabilen arren, Espainiako Txapelketan bigarren izan da. Lortu berri duenaz eta Italian jokatu denaz mintzatu da HITZAREKIN Xabier Artola tolosarra.

**Urte guztia Europako Txapelketa prestatzen aritu ondoren, bertara joateko aukera izango duzu Espainiakoetan lorturiko bigarren postu honekin, ezta?**

Bai, aurtengo helburu nagusia hori zen, lehengo denboraldian bezala Europako Txapelketan egotea. Horretarako saioan zaudela erakutsi behar

duzu eta Espainiako Txapelketan lorturiko bigarren postu honekin ez da arazorik izango. **Prestakuntza benetan luzea da 3 egunetan jokatu den txapelketa baterako.**

Beno, irailetik ari naiz txapelketa hau prestatzen, helburu hori aukeratu nuelako, baina tartean lehiaketa gehiago egin ditut, Espainiako Txapelketa barne. Urte osoan zehar kontzentrazioak izan dira Espainiako selektzioarekin; Sevillan, Espainiako Txapelketaren aurretik, Tafallan eta berriro Sevillan, azken asteetan, baina azken hauetan ezin izan dut egon azterketak nituelako. Orain, azterketak amaiturik, gogor hasiko naiz berriro.

**Nolakoa izango da prestakuntza aste hauetan?**



I.ASENSIO

Betiko moduan egingo dugu lana. Gimnasio saioak eta bizikleta txandaturik. Ni elite mailan lehiatuko naiz, abiadura proban. Horretarako gihar indartsuak behar dira. Hilaren 13tik 18ra Valentzian egingo dugu azken kontzentrazioa. 18an Italiara joko dugu, Fiorenzuclara, bertan 20tik 24ra bitartean

Europako Txapelketan lehiatzeko **Zein dira zure helburuak bertan?** Nik uste aurreneko zortzietan egotea posible dela, hala pentsatu behar da behintzat. Lehengo urtean taldekako abiadura proban loruriko denbora hobetzea ere ondo legoke. ◀

UDANE SARASOLA ▶ TXIRRINDULARIA

# «Ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz eta horrekin konforme»

Euskal Selektzioarekin ariko da hilaren amaieran Espainiako Txapelketan

Gaztea da bera. 16 urte besterik ez ditu eta dagoeneko 8 urte daramatza txirrindularitzan. 8 urte zituela, bere gelako lagun batzuekin hasi zen txirrindulariaren. Egun, 8 urte beranduago Urrats txirrindularitza taldean ari da lanean, eta oraingoz «jarraitzeko intentzio osoa» du Udane Sarasola anoetarra.

**Nola hasi zinen horren gazte pedalei ekiten?**

Nire gelakide batzuk txirrindularitzan hasi behar zuten eta beraiekin animatzeko esan zidaten. Horrela Irrintzi txirrindularitza eskolan hasi ginen guztiak. Denborarekin beraiek utzi egin zuten, baina benetan gustuko nuen eta horregatik duela bi urte, zirkuituetan lehiatzeaz aspertuta Urrats tal-

dera joatea erabaki nuen, kanpoaldean ere korritzen haste-ko.

**Zortzi urte ziklismoan, DBH ikasten ari zara eta entrenatzeak ere bere denbora eramango dizu, ez al zaitu nekazten bizitza erritmo honek?**

Txirrindularitzan jarraitzen badut, gustura nabilelako da. Ramon Elkoro prestatzaileak egunean bizpahiru orduko entrenamenduak prestatzen dizkit eta horrek bere denbora kentzen dizu, egia da. Hala ere beti dago tartetxoren bat etxeko lanak egin eta ikasteko; antolakuntza gauza da.

**Hainbeste urte pasatu ondoren pista egiten hasi eta Euskal selektzioan aritzeko aukera iritsi da, pozik egoteko arrazoia da, ezta?**



I.ASENSIO

Bai, noski, Ana Usabiaga ordizierra eta biok pistari ekin genion denboraldi hasieran. Orain selektzioarekin entrenatzen ari gara, peralteari beldurra kendu eta pistako teknika hobetzeko. Bapatean mundu berri batean aurkitu naiz, baina gustura nabil pistan ere. **Euskadiko Txapelketan 4. izan**

**zinen, Espainiako Txapelketan lehenen artean aritzeko moduan ikusten al zara?** Ikusi beharko da. Momentuz ez dakit argi zein probatan lehiatuko naizen, eta niretzat ezezagun xamarra da pistako txirrindularitza. Ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz eta horrekin konforme. ◀

TOLOSA ▶

## Osasunak Mikel Arruabarrena fitxatu du

I.ASENSIO

Azken denboraldietan Bilbo Athleticen aritu ondoren, Osasunarekin fitxatu du Mikel Arruabarrena tolosarrak. Aurrendenboraldia eta lehen partidak bigarren taldearekin ariko den arren, talde nafarraren entrenatzaileek, lehen taldean minutuak eman- go dizkiotela esan diote tolosarrari. Arruabarrenaren hitzetan «kirol proiektu interesgarriagoa» eskaintzen ziotelako hartu du Athletic utzi eta Osasunara jotzeko erabakia.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun exea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228

- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroazko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

**LANA Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** III. Langostino Moto Festa: gosaria; bira eta hamaiketakoa; bazkaria eta festa amaiera.

**Tolosa.** Jubilatuen bazkaria, Ferialekuan.

**Tolosa.** Leidor zineman 19:30ean 11:14 *Destino fatal* eta 22:00etan *La guerra de las galaxias III* filma. Sarrera: 2 euro.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 46 10.

**Bihar**

**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52. 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7. 943 67 06 48.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Motozaleen bilkura

**IBARRA ▶ III. Langostino Moto Festari ekin zioten atzo motoen erakustaldia eta jokoekin; gaur ibiladia egingo dute motozaleek tropelean**

**ERREDAKZIOA**

Motoak eta motozaleak erruz izan ziren atzo III. Langostino Moto Festan. Ehundik gora moto izan ziren ikusgai Ibarrrako plazan: izen eta mota guztietakoa. Urtero bezala, jokoak egin ziren eta noski, motoak izan ziren protagonista. Horrela, *Geldoa* izeneko jokoan, ahal zen motelen joan behar ziren moto gidariak, oreka mantenduz. Amaierara beranduen iristen zena irabazten zuen. Kupelak jokoan, berriz, ahal zen azkarren mugitu behar zituzten kupelak motoak erabiliz eta ibili-

bide batetik atera gabe. Azkenik, Saltxitxa izeneko jokoan, moto gainean bi lagun jarri, atzean zihoanak zintzilik zegoen saltxitxa bat harrapatu behar zuen. Pusketa handiena lortzen zuenak eramaten zuen saria.

Gaurko egunean motozaleak motoetan ibiladitxoa egitera joango dira. Goizeko gosariaren ondoren, motoak prestatu, kaskoak jantzi eta tropelean aterako dira Ibarrratik. Hamaketakoa egin ondoren, *langostinoen* herrira itzuliko dira eta ondo bazkaldu ondoren, 16:00ak aldera jokoan sari banaketa egingo dute.



Moto ikusgarriak ikusi ahal zituzten festara joandakoek. JAIONE ASTIBIA

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**

**Andoni.** Ez pentsa hitaz ahaztu garenik. Urtero bezala herriko festetan Leaburu-Txaramako lagunak bildu gara hi agurtzeko.



**URTE ASKOAN**

**Irati Artoia.** 8 urte bete zituen oslegunean. Villabonako neska sorigarrentzat, Eñaut lehenaguzaren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Ibai Olazabal.** Bihar 5 urte. Zorionak aitaxo, amaxo eta arrebaren partetik.



**ZORIONAK**

**Xabi Unanue Gil (Tolosa).** Gaur 13 urte. Egun ona pasa familiaren partetik.



**ZORIONAK**

Berrogeta hamar urte pasata, **Periko eta Corona,** elkarrekin ospatzea da benetako zoriona. Familiaren partetik.

**HITZA,**  
zorian agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!



**ERDI ETA GOI MAILAKO  
HEZIKETA ZIKLOAK**

"Zure helburua lan egitea bada..."

**OSTALARITZA ETA TURISMOA**

- Jostelbete arloa.
- Sukaldaritza.
- Gozogintza eta okingintza.
- Jaletxe eta tabernako zerbitzuak.
- Sukalde-haguntzalea, I. maila.
- Ostalua arloa.
- Bidaiaria agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

**MARKETARITZA ETA MARKETINA**

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

**INFORMATIKA**

- Informatika-sistemen administrazioa (A eta D).
- Informatika-aplikazioen garapena (A eta D).
- Idazkari-txostenak.
- Sistema informatikoen ustaketa.

**ADMINISTRATZIOA**

- Administrazioa eta finantzak (A eta D).
- Administrazio-kudeaketa.
- Idazkari-txostenak.
- Bulego-haguntzalea, I. maila.



**BENETAKO PROFESIONALA  
IZANGO ZARA**

**MATRIKULA ZAITEZ!**

943 316 900

